

JANGELAKO ARAUAK

1. Jangelako zerbitzua institutuko borondatezko zerbitzua da eta erabili ahal izateko heziketa zein elkarbizitza arau batzuk errespetatu eta jarrera egokia izan beharko da.
2. Aurreikusten diren ez bertaratzeen berri eman beharko da.
3. Menu aldaketak idatziz eskatu beharko dira.
4. Mahaiko kide guztiek bazkaltzen bukatzen dutenean mahai tresnak jasoko dituzte eta officeko lehiatilara eramango dituzte.
5. Yogurren ontziak, hauen tapak eta plastikoak ontzi horian botako dira, soberakin organikoak horretarako dagoen kuboan.
6. Bultzatu gabe eta poliki sartu eta irtetea mesedez eskatzen da.
7. Banatzen den ogiarekin, bokadilorik ezingo da egin.
8. Institutuko gainontzeko jardueretan bezala, arauhauste edo jarrera desegokirik izatea neurri hezitzaileak aplikatzea dakar.
9. Erabiltzaileek hezitzaileen ohartarazpenak bete beharko dituzte.
10. Zerbitzatzen diren plater guztiak probatu beharko dira. Kasu bereziak jangelako arduradunarekin jorratu dira.